

## **II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA**

### **B U R L A T A**

#### ***Burlatako udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza***

---

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Burlatako Udalarentzat, udalerriko bi hizkuntza berezkoetariko bat da euskara. Gainera, ordenantza honetan, kontutan hartzen du euskararen sustapenaz eta normalkuntzaz den bezainbatean, herritarrek duten aldeko jarrera, bai Nafarroako Gobernuak, bai Euskara Batzordeak gaurdaino egin dituzten azterketa sozio-linguistikoetatik ondorioztatzen den bezalaxe.

Orobat, 3 urteko haurretan ohartamangarria da urtez urte euskarazko matrikulazioaren portzentaiaren gorakada: hondar urteetan erroldako umeen % 40 egin du jadanik.

Horrek guztiak gizarteak euskararen aldeko gogoia duela adierazten digu eta erakusten, halaber, urteak iragan ahalean, Burlatako herria gero eta elebidunagoa izanen dela, hau da, gero eta euskaldun gehiago biziko direla bertan. Gizarte sektore horrek, legeak onartzen dizkion hizkuntz eskubideak erabiliz, Udalari gero eta zerbitzu gehiago galdatu ahal izanen dizkio euskaraz, baita galdatuko ere, noski, eta Udalak, zerbitzu publikorako bokazioa izanik, erantzun beharko dio nahitaez eskari horri.

Hortaz, Udalak Burlatako bizilagunei zerbitzu eta harrera euskaraz egitea bermatzea da ordenantza honen xede generikoa.

Udalaren nahiz herritarren gogo argi honez landa, aipatu beharra dago Espainiako Konstituzioak Espainiako hizkuntzek daukaten kultur ondarea bereziki errespetatzea eta babesteko manua egiten diela botere publikoei; Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen helburua dela herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta haren berreskurapena eta garapena begiratzea; Lege berak herritarrei aitortzen diela administrazio publikoekiko harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea, eta aurreikusten duela halako lanpostu batzuetan nahitaezkoa izaten ahal dela euskaraz jakitea eta gainerakoetan kontutan hartzen ahal dela; eta, azkenik, Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera arautzen duen uztailaren 4ko 135/1994 Foru Dekretuak aurreikusten duela horiek behar diren neurriak hartzea herritarrek administrazioari euskaraz egiteko duten eskubidearen berme, barne erabilpeneko inprimakietan euskara erabiltzeko joera, administrazioen artean euskara erabiltzeko aukera eta halako lanpostu batzuetan euskaraz jakitea eskatu ahal izatea, eta bertze batzuetan, berriz, merezimendutzat hartzea.

Ordenantza honek, beraz, xede hauek ditu:

Herritarrek zer hizkuntza erabili nahi duten, hartantxe bermatzea haiendako harrera.

Euskararen idatzizko erabileraren araudia zehaztea.

Euskaraz zer lanpostutarako jakin behar den zehaztea, euskara lan hizkuntzatako izan dezaketen administrazio prozedura ohikoenei begiratuta.

Euskaraz jakitea nahitaezko ez duten lanpostuetan euskara zer portzentaiatan baloratuko den zehaztea.

Euskara bultzatzeko neurriak jorratzea.

Burlataren elebiko izen ofiziala zehaztea.

Aipatu araudia kontutan harturik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 324. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz, ondoko ordenantza onestea erabaki da.

## I. KAPITULUA

Ordenantzaren aplikazio esparrua

1. artikulua. Ordenantza hau Burlatako Udalean aplikatuko da, eta halakotzat hura bera hartuko da, zentzu hertsian, baita haren menpeko erakunde autonomoak ere.

2. art. Udalaren eskumeneko zerbitzu batzuk hirugarrenek egiten badituzte, edozein dela ere horretarako kudeaketa modua, haietan ordenantza honen IV. kapitulua aplikatuko da.

## II. KAPITULUA

Administrazioen arteko harremanak

3. art. Burlatako Udalak bertze administrazio publikoei igortzen dizkien agiri, jakinarazpen eta adierazpen administratiboak, orokorrean, elebitan idatziko dira, baldin eta administrazio horiek eskualde euskaldunean badira edo berorietan euskara ere hizkuntza ofiziala bada.

4. art. Bertze edozein eskualdetako administrazioei, berriz, elebitan eginen die Burlatako Udalak, beti ere bertze administrazioak gisa horretan eman badio hasiera harremanari.

## III. KAPITULUA

Herritarren eskubideak

5. art. Herritarrek Burlatako Udalari gaztelaniaz nahiz euskaraz egiteko eskubidea dute.

6. art. Idatziz, Udalari euskaraz egitea hautatzen duten herritarrei halaberean erantzunen zaie. Horretarako, itzulpen zerbitzua erabiliko da, bertsio ofiziala eman dezan bai herritarren eskearena, bai hari eman behar zaion udal erabaki edo erantzunarena.

7. art. Ahoz, Udalari euskaraz egitea hautatzen duten herritarrei halaberean eginen zaie harrera. Horretarako, Udalak jarduketa plan bat diseinatu eta burutuko du, lantokietan,

jendeari harrera egin behar bazaio, udal langile euskaldunak izatea bermatzeko, beti ere ordenantza honen V. kapituluak dioen bezala.

#### IV. KAPITULUA

Udalaren kanpo irudia

8. art. Burlatako Udalak gaztelania eta euskara erabiliko ditu herritarrei orokorrean egiten dienean.

Hartara, elebitan egingen dira:

Bandoak, ediktuak, afixak eta argibideetarako plakak.

Zigiluak, tanpoiak, logotipoak, orriburuak eta gisakoak.

Eraikin, karrika eta eremu publikoetako errotulazioa.

Udal egoitza eta bulegoetako errotulazioa, Udalaren ibilgailuena, eta langileen arropa eta uniformeak.

Interes turistikoa duten tokietako seinaleztapena, etzana nahiz zutikakoa izan, zerbitzuen kontrolekoa, eta bide seinaleak.

Udalak herritarren eskura jartzen dituen agiriak eta ereduak, administrazio prozedura guztiez argibideak eman beharrez.

9. art. Afixetako elementu guztiak elebikoak izanen dira.

Udalaren jarduketaz argibideak emateko edo propaganda egiteko liburuxkak elebitan egingen dira herritar guztientzat badira.

Kultura, kirol, e.a.en arloko jarduketa baten berri emateko liburuxketan, esku-programetan, katalogoetan e.a.etan, hizkuntzak honela erabiliko dira:

Argibide orokorrak (lekua, data, ordua, e.a.) elebitan joanen dira.

Ukitzen duen jarduketa batik bat hizkuntzaren ahozko erabilpenean oinarritzen bada (mintzaldiak, antzerkia, poesia, ikus-entzunezkoak, e.a.), hura azaltzeko elementuetan, hala nola esku-programetan eta katalogoetan, jarduketa zer hizkuntzatan egingen den, huraxe erabil daiteke, bertze hizkuntzan laburpen tiki bat eginez.

Jarduketa bertze lengoaia batzuen bitartez gauzatzen bada: bisuala, musika, plastikoa, etab., argibideak bi hizkuntzetan emanen dira.

10. art. Publizitatea komunikabideetan.

Prentsan Udalak argitaratzen dituen udal iragarkiak elebikoak izanen dira.

Ikus-entzunezko komunikabideetan -irratian eta telebistan- publizitatea bi hizkuntzetan eginen da.

#### 11. art. Argitalpenak.

Burlatako Udalaren argitalpenak eta haren menpeko erakundeak elebitan eginen dira, interes orokorrekoak eta herritar guztientzat direnean, baita interes turistikoa edo Burlatarendako izaera enblematiko edo sinbolikoa dutenean ere.

#### 12. art. Udalaren beraren hedabideak: BIM.

BIMaren titulu finkoek nahiz zenbaki batetik bertzera aldatu eta erreportaia guztietan buru egiten dutenek elebiko tratamendua izanen dute, euskaraz eta gaztelaniaz, eta maila berean.

Artikuluak, elkarrizketak, e.a. gaztelaniaz badira, haien laburpena eginen da euskaraz. Horretarako bidea leihoa, idazpurua edo bertze edozein izanen da, egokia izanez gero, eta beti ere laburpena nabarmenduko da, ezaguterraza izan dadin. Testu laburtuaren % 25-30 izanen da luze.

Gisa eta baldintza beretan eginen da euskarazko artikulu, elkarrizketa, e.a.en gaztelaniazko laburpena.

Iragarleei aditzera emanen zaie beren iragarkiak osoki edo partez elebitan paratzeko aukera dutela. Horretarako, Udalaren beraren itzulpen zerbitzua eskainiko zaie.

### V. KAPITULUA

#### Udalaren langileak eta barne funtzionamendua

13. art. Udalaren plantila organikoan zehaztuko da zer lanpostutarako, jendearekin harreman gehiago izateagatik edo administrazio prozedura normalduen katearen barnean duten lekuagatik, jakin behar duten euskaraz haiek okupatzen dituzten funtzionarioek, ordenantza honen eraskin batean eginen den proposamenari jarraikiz.

Delako eraskinean hauek agertuko dira: herritarrekin ahoz nahiz idatziz harreman gehien duten udal esparruen azterketa, administrazio prozedura maizkoenak, aipatu esparru edo prozeduretan sartutako lanpostuen hizkuntz eskakizunen definizioa, herritarrari harrera euskaraz egitea bermatuko duten zirkuitu elebidunen azterketa, eta jarduketa plan baten ezarpena bakoitzari atxikitako hizkuntz eskakizuna eskuratzeko bitartekoak eta baliabideak finkatzearen.

14. art. Burlatako Udalak lanpostuak betetzeko egiten dituen deialdi guztietan, hizkuntza hori jakitea merezimendutako sartuko da, eraskinaren ariora euskaraz jakitea beharrezkoa ez bada.

15. art. Herritarrarekin harreman zuzena ez duten lanpostuetan euskararen balorazioa % 5 izanen da deialdiko puntu guztien gainean (lehiaketa gehi oposizioa). Aldiz, herritarrarekin harreman zuzena duten lanpostuetan euskararen balorazioa % 10 izanen da deialdiko puntu guztien gainean (lehiaketa gehi oposizioa).

16. art. Aitzineko artikuluan ezarritakoari doakionean, EGAK edo horren pareko tituluek egiaztatzen duten jakite mailari dagokio balorazio irizpide horiek aplikatuz gehienez ere ateratzen den puntuazioa.

Nolanahi ere, euskaraz jakitea proba baten bidez egiaztatu behar baldin bada, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzari eskatuko zaio bertako teknikariren bat egon dadin aholkulari.

## VI. KAPITULUA

### Euskararen sustapena

17. art. Burlatako Udalak, bere Euskara Batzordearen bidez, jarduketa programak prestatuko ditu urteoro, euskararen inguruko gaien gainean informazio maila handitzeko eta gizarte esparru guztietan haren jakitea eta erabilpena sustatzeko.

18. art. Burlatako Udalak Nafarroako Gobernuaren ekimen eta kanpainetan parte hartuko du, baita, mankomunitate gisa, bertze udal entitaterekin batean ere.

19. art. Aldez aurretik azterlana eginik, eta horren barnean, bertzeak bertze, eskura zenbat irakasle dauden eta irakasle/ikasle ratioa zein den kontutan harturik, behar diren urratsak egiten hasiko dira, gero batean musikaren hizkuntzaren irakaskuntzak euskarazko lerroa ere izan dezan.

20. art. Ahaleginak egingen dira Udalaren Kirol Patronatuak 3tik 18 urte bitarteko haur eta gazteendako egiten dituen jarduketan eskaintza euskaraz ere izan dadin, hizkuntza horretan eskolatuturik dauden burlatarrak zenbat, halakoxeko neurrian.

21. art. Udalak Burlatako euskaldunen zentsua egingen du, berme guztiak dituela egin ahal izateko haiendako kanpaina bereziak, hala nola 'Bai, esan?', "Euskaraz egin zure Udaletxean", bideoteka, e.a.

Gainera, hura egindakoan, udal erroldaren alta eta baja guztietan euskarari dagozkion galdera guztiak erantsiko dira, gisa horretan euskaldunen zentsua eten gabe eguneratu ahal izateko.

22. art. Udalaren ludotekan, gutienez ere astean egun bat euskarazko jardueretarako izanen da, D ereduan eskolatutako haurrendako, eskolan ematen den hezkuntzaren jarduera osagarria delako. Gisa horretan begiratzen da aita-amek beren seme-alabentzat egin duten hezkuntz hautua. Egun horretan ez da haur erdaldunen etorrera baztertzen.

## VII. KAPITULUA

### Burlataren izen ofiziala

23. art. Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari behar diren galderak egin ondoan, Udalak udalerriaren elebiko izena onetsiko du osoko bilkuran.

## AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honek behin betiko onespeneraren erabakia Nafarroako  
ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabortz egun iraganda hartuko du indarra.

Bigarrena.-Burlatako Udalaren Euskara Batzordeak eskumena izanen du ordenantza hau  
betetzen ote den segimendua egiteko eta, hura bermatu beharrez, edozein gairen gainean  
proposamenak egiteko. -- -- A9706855 --

---

<a href="#">Inicio</a>
------------------------

<a href="#">B.O.N.</a>
------------------------

<a href="#">Sumario</a>
-------------------------

---